

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Hezkuntza Departamentuak hamar zentro publiko saritu ditu kalitatearen aldeko apustua egiteagatik

*Iribas kontseilariak ziurtagiriak eman dizkie ikastetxe eta institutu horietako zuzendaritza-kideei*

Lunes, 15 de diciembre de 2014

Hezkuntza Departamentuak Nafarroako hamar zentro publiko saritu ditu beren ikastetxe eta institutuetan eskaintako zerbitzuen kudeaketan kalitate nahiz etengabeko hobekuntza sustatzeagatik. Haietatik, seik zentro bikainaren zigilua jaso dute, sari gorena, eta lauk, kalitatearena.

Bikaintasunaren zigilua lortutako zentroak honako hauek dira: Azagrako Reyno de Navarra DBHI; Nabaskozeko Otero ikastetxe publikoa, Cintruenigon; Lizarrako Politekniko IB; Noaingo San Migel ikastetxe publikoa; Iruñeko María Ana Sanz IB, eta Tuterako LHI ETI.

Bestalde, kalitatearen zentroko zigiluak honako hau jaso dituzte: Irunberri LH; Mendabiako Joaquín Romera DBHI; Noaingo Elortzibar DBHI; eta Iruñeko Nafarroako Lanbide Eskola Tekniko Sanitarioa IB.

Zigiluak gaur goizean banatu ditu Hezkuntza kontseilari José Iribasek, eta Unibertsitate, Kalitate eta Prestakuntza Zerbitzuko zuzendari Rosa Lópezek Nafarroako Jauregiko Tronuaren Aretoan egindako ekitaldian.

Haiekin, zentroek beren borondatez honako hauei lotutako prozesuen kalitatezko estandarrekin hartutako konpromisoa saritu dira: matrikulazioa, jangela nahiz garraioaren plangintza, ikaslearen harrera, programazio didaktikoa, bai eta pertsona eta baliabideen kudeaketa ere, besteak beste.

### Saritutako 49 zentro

Nafarroan, guztira 49 zentro publikok jaso dute kalitatearen zigiluak. Haietatik 42 Hezkuntza Departamentuak jarritako estandarrak errespetatuz saritu dira; beste zazpi, berriz, beste erakunde batzuek saritu dituzte, Bikaintasunerako Nafarroako Fundazioa eta ISO Ziurtagiriak, adibidez.

Hezkuntza Departamentuak saritutako 42 ikastetxe eta institutuetatik,



Iribas kontseilaria, saritutako zentroetako zuzendaritza-kideen alboan.

25k bikaintasunaren zigilua dute eta 17k kalitatearena. Gainera, 49k beren zerbitzu-gutun propioa egin dute; gutun horrek jardueren kalitatea ebaluatzeko prestazioak, arreta-konpromisoak eta sistemak jasotzen ditu.

Aurtengo zigiluak 2013an onartutako [SGCC araudia](#) betez eman dira. Araudi horrek ezartzen duenez, kalitate-sareetako zentroetako partaidetza borondatezkoa da eta lau fasetan egiten da, oro har:

- Lehenengoan, kalitate-kudeaketaren printzipioetara hurbilketa bat egiten da, beste zentro batzuetako esperientziatik abiatuz (Nafarroan dauden kalitatezko 17 sareetako batean parte hartzea).

- Bigarreanean, prozesuen definizio, ezarpen eta hobekuntzan egiten da indarra, kanpoko ebaluazio batera aurkezteko helburuarekin eta, hari esker, kalitatearekin edo kalitate-zentroarekin konpromisoko aitorpenak lortu ahalko dituzte.

- Hirugarrengoa, zerbitzu-gutun bat egiten da (bikaintasun-zigilua lortzeko aurretiazko baldintza) eta, zentro bikainaren ziurtagiria erdietsi nahi duten ikastetxe nahiz erakundeetan, autoebaluazio bat egitea.

- Laugarren eta azken fasearen helburua, kudeaketa-sistemetan era autonomoan sakontzen jarraitzea da etengabe hobetzen jarraituz.

### **129 zentro parte-hartzaile**

Gaur egun, guztira 129 zentrok parte hartzen dute Nafarroan dauden kalitatezko 17 sareetakoren batean, honako hauek barnean sartu ondoren: Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroa (CREENA), irakasleei laguntzeko bost zentro (IGA), eta Nafarroako Urrutiko Hizkuntzen Eskola Ofiziala (EOIDNA).

Gogora ekarri behar da, kalitate-sistemak jartzeko prozesua 1998-1999 ikastaroan hasi zela Nafarroan, Bigarren Hezkuntzako zenbait ikastetxeren ekimenari esker, eta hurrengo ikasturtean, gainera, Kadinet izena hartu zuten; kalitatezko prozesuak sustatzeko sare bat da, eta bere funtzionamendua hobetzea du xede, UNE-EN ISO 9001 araua eredutzat hartuz.

2004-2005 ikasturtean, Hezkuntza Departamentuak kalitate-sarea antolatzeko ardura hartu zuen eta, 2006an, Difusión izeneko bere programa propioa abian jarri zuen, Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan kalitatezko kudeaketa-sistemei buruzkoa.

Gaur egun, kalitatezko kudeaketa unibertsitarioak ez diren maila guztietara zabaldu da (Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzak, LH, hizkuntz eskolak eta baliabide nahiz laguntza zentroak), hizkuntz eredu guztietara eta Nafarroako eskualde guztietara; hamabi sare daude Iruñean, bi Tuteran eta bakarra Baztan, Lizarra eta Tafallan.